

## 76. EUSKAL SOZIOMETROA (2022ko martxoa) Prensa oharra

### SARRERA

76. Euskal Soziometroa 2022ko lehenengoa da. Bertan biltzen dira herritarrek egoerari buruz dituzten pertzepzioak eta bere jarrera eta balio politikoak.

Landa lana 2022ko otsailaren 21etik 25era bitartean egin zen.

### EGOERAREN BALORAZIOA

#### Euskadiko egoeraren pertzepzioa hobera doa

Euskal herritarrek 10etik batez beste 6,9 puntu eman dizkiote beren “egungo egoera pertsonala”ri, eta 7,1 puntu urtebete barru izango dutela uste duenari.

“Euskadiren egungo egoera”ren balorazioa 6,1 puntukoa da, eta urtebete barru zertxobait hobea izatea espero da, 6,3koa. Euskadiren egoeraren balorazioa nabarmen hobetu da aurreko neurketatik, 2021eko maiatzetik, orduan 5,6 puntukoa izan baitzen.

“Espainiaren egoera”ri dagokionez ere balorazioa zertxobait hobetu da, 2021eko maiatzean 4,5 puntu izatetik gaur egun 4,7 puntu izatera igaro baita. Kasu horretan ere, urtebete barru egoera hobea izatea espero da.

**Euskadiko arazo nagusiei** dagokienez, gizartearen lehenengo kezka iturria berriz ere lan-merkatuarekin lotutako arazoetan kokatzen da. Biztanleriaren % 65ek aipatzen ditu hiru arazo nagusietako bat bezala.

Bigarrenik, distantzia handira bada ere, “osasun-arretarekin, Osakidetzarekin eta, oro har, osasungintzarekin” lotutako arazoak daude, biztanleriaren % 22k aipatu dituenak. Aipamen horiek ordeztu egin dituzte aurreko urtean aipatutako Covid 19arekin lotuta hainbat arazo zehatz. Arazo horiek iaz %28k aipatu zituen, eta orain %17k.

Arazo horien atzetik etorriko lirateke egoera politikoa, politikoak eta gatazka politikoa (% 15), arazo ekonomikoak (% 15), etxebizitza eta etxegabetzeak (% 14) eta delinkuentzia eta herritarren segurtasunik eza (% 10). “Egoera politikoa”ri dagokionez, alde handia dago Euskadi eta Estatuaren artean, Euskadin %15ek aipatu baitu arazo hori eta Estatuan, CISen datuen arabera, %61ek.

Unibertsitatea da oraindik herritarrei **konfiantza sozial** handiena sortarazten dien erakundea; EAEko biztanleen % 87k gehienbat konfiantza du harengan. Ondoren datoz Eusko Jaurlaritza (% 77), foru aldundiak (% 74), udalak (% 72) eta Eusko Legebiltzarra (% 71).

Herritar gehienek konfiantza dute GKEetan eta enpresetan (% 60k bi kasuetan), baita Europar Batasunean ere (% 58k), eta zertxobait gutxiago justizia-auzitegietan (% 49k) eta sindikatuetan (% 46k).

Herritarrei konfiantza gutxien sortarazten dieten erakundeak dira hedabideak (% 36), Espainiako Gobernua (% 34), Diputatuen Kongresua (% 25), eliza katolikoa (% 24), alderdi politikoak (% 20), bankuak eta, azkenik, konfiantza txikiena sortarazten duen erakundea Monarkia da (% 19).

### JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

#### Errealitate sozialarekiko interes ertain-altua

Herritarren % 55 gizartean gertatzen diren gauzen parte sentitzen dira asko edo pixka bat, hau da, gizartean gertatzen diren gauzetan interesa dute, eragiten diela sentitzen dute edo parte hartzen dute. Aitzitik, % 31k parte direla gutxi sentitzen dute, eta % 13k batere ez.

Herritarren % 66k interes gutxi edo batere interesik ez dute politikan, eta % 34k, aldiz, interes handia edo nahikoa du.

Era berean, alderdi politikoren batekiko hurbiltasun sentimenduaz galdetuta, biztanleriaren % 66k dio inolako alderdirekiko ez oso hurbil edo batere hurbil ez dela sentitzen; % 18 apur bat hurbil sentitzen da eta % 15 oso edo nahiko hurbil.

**Begikotasun politikoei** dagokienez, EAJ da herritarren artean begikotasun handiena sortzen duen alderdia, 4,8 punturekin 0tik 10erako eskalan. Ondoren, PSE-EE (4,1), EHBildu (3,6), Elkarrekin Podemos (3,4) eta PP (1,6) daude, eta, azkenik, Vox (0,7). Azken hori izan ezik, alderdi guztiek galdu dute sinpatia apur bat 2021aren aldean.

Buruzagi politikoei dagokienez, baloraziorik altuena Iñigo Urkullu lehendakariari dagokio, 5,4 puntu lortu baititu 0tik 10erako eskalan. Bigarrenik, Maddalen Iriarte ere ontzat eman dute, 5,1 punturekin. Ondoren datoz Miren Gorrotxategi (4,6), Eneko Andueza (4,5), Amaia Martinez (2,7), eta, azkenik, Carlos Iturgaitz (2,0). Buruzagi politikoen balorazioak ia ez dira aldatu iazkoarekin alderatuta.

EAEko biztanleen % 55 oso edo nahiko pozik daude Euskadin demokraziak duen funtzionamenduari; askoz gutxiago dira, % 27, Espainian demokraziak duen funtzionamenduari pozik daudenak.

Herritarren % 45 “soilik euskal herritar” edo “euskal herritar, espainiar baino gehiago” sentitzen dira; % 41 “euskal herritar bezain espainiar”, eta soilik % 8 “espainiarra euskal herritarra baino gehiago” edo “bakarrik espainiarra”.

Euskadiko biztanleen % 22 independentziaren alde daude, % 32 independentziaren alde edo kontra leudeke egoeraren arabera, eta % 40 aurka daude. Iritzi horiek ia ez dira aldatu 2021ekoekin alderatuta.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.333 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm 1,7$ koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2022ko otsailaren 21etik 25era egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 11